

PAGOA (Fagus Silvática L.)

Zuhaitz gorpuztsua, altueran 40m. edo gehiagokoa. Azal zurizka eta leuneko enbor lodi eta zuzena izaten du. Bere adarrak horizontal, tente eta ugariak dira. Hosto bakun eta erorkorrak ditu. Udaberrian berde argi kolorea hartzen dute eta udazkenean marroi gorrizka.

Udaberrian loratzen da eta fruituak (pagotxak) urria alde-
ra ematen ditu. Pagotxak
marroiak dira, gaztain txiki
modukoak. Arantzazko kap-
sula baten barruan gordeta
aurkitzen dira. Landarea hazi-
tik ugaritzen da. Urte batzu-
tan haziak erruz ematen ditu
eta beste batzuetan berriz ia
batere ez.

Zuhaitz hau pagadietan bil-
tzen da ia espezie bakarreko
basoak sortuz. Poliki hazten
da bere gaztetasunean baina
behin tamaina bat hartzen
badu oso zaila izaten da beste
espezie batek aurre hartzea.

Europako baso zuhaitz
garrantzitsuenetakoa dugu eta
300 - 1000 metrotako altue-
ra bitartean topa dezakegu.

Garai batean Euskal
Herrian zabalduena zegoen
zuhaitza zen baina gaur egun
Nafarroako iparraldean baka-
rrik topa dezakegu baso haun-
dietan.



Hemen Lezon zuhaitz hau oraindik bereziagoa da ale heldu bakar batzuk ez bait daude. Nagusienak Txoko-txiki inguruan, Elortegi eta Bonatxo artean eta Harriaundi eta Elortegi artean topa ditzakegu.

EZAUGARRI EKOLOJIKOAK

Pagoek hezetasun haundia, klima frexkoa eta putzurik gabeko lurra behar dute.

Hosto ugari ditu eta hauek lurra asko ongarritu eta hobetzeaz gain, ur kantitate haundiak lurruntzen dituzte.

Ezin du oxigeno faltarik jasan. Kutsadura atmosferikoa eta kaleei darien gehiegizko beroekiko oso sentikorra da.

Pagatxek janarirako balio haundia dute, aritzen ezkurra bezalaxe animali askoren elikadura bait da.

Egurra gogorra eta estimatua da; baita bere ikatza ere.

Hala eta gutzi ere, pagoen balio haundiena bere garrantzi ekolojikoan dago; lur ezin hobeak eta Euskal Herrian dauden klimax -komunitate garrantzitsuenak eratzen dituzte.

LEZOKO EKOLOJI TALDEA

